

Bergarako 87 urteko herritarrei omenaldia egiteko San Xosepe Elkartea eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena

Bergaran bi mila eta hogeita hiruko otsailaren 2an.

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko alkatea, Bergarako San Martin Plaza, 1-ean egoitza izan eta P- 2007900-J I.F.Z. zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean.

Bestetik, Nestor Iñurrieta Labayen jauna, NAN 15360610Z duena, Boni Laskurain, 9 - 20570 Bergara (Gipuzkoa) egoitza izan, eta G20577581 I.F.Z. duen San Xosepe Elkartearen izenean.

Bi aldeek elkarri elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengoak

ADIERAZI DUTE

1.- San Xosepe Elkartek Bergarako Udalaren laguntzarekin Bergaran bizi eta urtean zehar 87 urte betetzen dituzten herritarrei urtero omenaldia egiten die.

2.- Bergarako Udalak positiboki baloratu duela ekimena, eta alkateak 2023ko urtarilaren 30ko dekretuz onartu du diru-laguntza ematea eta ekimena hau burutzeko bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, ondorengoak izanik

KLAUSULAK

LEHENENGOA: San Xosepe Elkartek Bergaran bizi eta urte honetan 87 urte betetzen dituzten herritarrentzako omenaldia antolatuko du.

BIGARRENA: San Xosepe Elkartearen egitekoak izango dira ondorengoak:

- Omenaldiko programazioa antolatu eta data zehaztea.
- Omenaldiko programazioan jaso diren ekintzak antolatzea.
- Omenaldia jasotzen duen pertsona bakoitzari banatuko zaion oroigarria zein izango den zehaztea.
- Omenaldia jasoko duten herritarrei idatzizko gonbidapena bidaltzea.
- Urtean 87 urte betetzen duten pertsonen zerrenda, udalak emandakoa, babestu beste inork akzesorik ez izateko. Halaber, datu horiek soilik gonbidapena egiteko erabiltzea eta ondoren ezabatzea beste inolako erabilerarik eman gabe. Betebehar hau ez betetzearen ondorioz, erantzukizunen bat sortuko balitz, aurre egitea.

Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartea
"SAN JOXEPE"
Boni Laskurain, 9 - 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 21 40



[Handwritten signature]

[Handwritten signature]

- Udalak ordainketa egin ahal izateko, ekintza burutu ostean ekintzari dagokion memoria ekonomikoa (izandako diru sarrera eta gastuen zerrenda) eta fakturen kopiak aurkeztea Udaletxean. Halaber, memoria ekonomikoarekin eskatu eta jasotako dirulaguntzen agiriak aurkeztea eta jaso ez bada zinpeko aitorpena.

HIRUGARRENA: Bergarako Udalak ondorengo egitekoak izango ditu:

- San Joxepe Elkarteari Bergaran bizi eta urtean zehar 87 urte beteko dituzten herritarren zerrenda helaraziko dio. Zerrenda horretan, excell formatuan, jasoko den informazioa izango da: izena eta bi abizenak, jaiotze-data, helbidea eta telefonoa.
- Omenaldiko gastuei aurre egiteko, antolatutako ekintza eta oroigarriak, gehienez 43,90 €/pertsonako (Euskadiko Autonomia Erkidegoko 2022ko KPIa, %5,4a, aplikatuz) diru-laguntza ematea.
- Diru-laguntza honi aurre egiteko behar diren aurrekontuak egokituta edukitzea.
- San Joxepe elkarteak ekintzaren memoria ekonomikoa eta fakturen kopia aurkeztu ondoren, hauek ontzat eman eta ordainketa egitea.

Udalak ez du beste betebeharririk bere gain hartzen.

LAUGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia 2023/01/01-2023/12/31 bitartekoa izango da. Bi aldeetako batek bertan behera utzi nahiko balu, beste aldeari 3 hilabeteko aurrerapenaz idatziz adierazi beharko dio.

BOSGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-ekarpenak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Bergarako udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra eta Bergarako aurrekontuetako udal arauak aplikatuko dira.

Honako hau irakurrita eta ados daudelarik, ale hirukoitzez sinatu dute, aipaturiko tokian eta egunean, nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.



IDAZKARIA
Mª Concepción Ugalde
Izeta



BERGARAKO
ALKATEA
Gorka Artola Alberdi



San Joxepe Elkartea
Nestor Iñurrieta Labayen

